



Arartekoaren 2022R-75-20 Ebazpena, 2022ko urriaren 11koa. Horren bidez, Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen zaio berrikerik ditzala diru-sarrerak bermatzeko errentaren aldi baterako etetea eta ondorengo iraungitzea, ez baitago hori erabakitzeke kausarik, izan ere, kexagileak administrazioarekin lan egin du eta justifikatu du behin-behinean ezinezkoa izan zela mantenu pentsioa osorik ordaintzea. Gainera, ezinezkotasan hori ezin da alderatu titular guztiek egoera ekonomikoa edo bazterketa egoera areagotzea ekiditeko baliabideak arduraz administratzeko duten betebeharra bete ez izanarekin.

Aurrekariak

1. Herritar batek Arartekoari esku hartzeko eskatu zion ez zegoelako ados Lanbidek bere bizikidetzaren unitateari aitortutako diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) osagarria aldi baterako eteteko emandako ebazpenarekin.

Kexagilea DSBEaren titularra da eta egungo bikotekidearekin osatzen zuen bizikidetzaren unitatea. Bere bigarren ezkontidea zen eta elkarrekin bi seme-alaba adingabeko zituzten, 4 eta 11 urtekoak. Bere lehen ezkontzatik beste 5 seme-alaba gehiago zituen bere ezkontide ohiarekin (bera ere DSBEaren eta EPOaren titularra da), eta ezkontide ohiak zuen ume horien zaintza eta jagoletza eskusiboa eta guraso bakarrek bizikidetzaren unitate ugaria osatzen zuen. Guraso eta seme-alaben arteko neurrien hitzarmen bat zuten judizialki 2010eko martxoaren 31n berretsi zena. Hitzarmen horrek bere aurreko harremaneko seme-alabei aitortzen zien hileko 300 euroko mantenu pentsio osoa, eta bigarren ezkontzako **semea eta alaba** jaiotze aurretik hartutako erabakia izan zen eta ez zegoen eguneratuta kexagilearen egungo familia kargen arabera.

Lanbidek 2019ko azaroan DSBEaren behin-behineko etetearen berri eman zionean kexagileak Kooperan lan egiten zuen, gizarte ekimeneko kooperatiba batean, eta gizarteratze kontratu bat zuen. Bere soldata 1.193,19 eurokoa zen, eta DSBE osagarria eta enplegu pizgarriak ere jasotzen zituen (433,3 eurokoak). Lanbidek 760,06 euro inguruko diru-sarrerak zenbatu zituen eta DSBEaren 273 euroekin osatzen zituen. Guztira gutxi gorabehera 1.466 euro jasotzen zituen hilabeteetan. Bere emaztea langabezian zegoen eta bizikidetzaren unitatea Alokabidek kudeatutako gizarte alokairuko etxebizitza batean bizi zen. Beraz, jada ez zuten jasotzen etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO).

Gurasoen eta seme-alaben arteko neurrien hitzarmen arautzailea 2010 bukaeran sinatu zutenetik ia 10 urtean zehar kexagileak ezarritakoa bete zuen, eta beste batzuen artean hileroko 300 euroko mantenu pentsioa ordaintzen zuen, bere 5 seme-alabei aitortu zitzaiona.





Hala ere, 2019ko azken lauhilekoan hasi zen mediku baja baten ondorioz (epe luzeko depresio¹ kliniko batekin lotutako osasun mentaleko arazoak zirela-eta²) bizikidetza unitatearen diru-sarrerak gutxitu ziren hileko 760 eurora, eta aldi batean ezin izan zuen mantenu pentsioa osorik ordaindu, izan ere, mantenu pentsioa ordaindu ondoren geratzen zitzaionarekin esan zuen ezinezkoa zela egungo 4 kideko bizikidetza unitatearen oinarrizko beharrak betetzea.

Hala ere, aldi horretan -2019ko urtarriletik 2020ko otsailera- kexagileak mantenu pentsioaren kopuru txikiagoa ordaintzen jarraitu zuen, hilean 100 eta 200 euro artekoa hitzarmeneko 300 eurokoa izan beharrean, eta gurasoen eta seme-alaben arteko neurrien aldaketa ez zen formalki hasi bide judizialean, ulertu zelako egoera puntuala zela eta baja medikoa bukatutakoan amaituko zela, eta ezta medikuak ezta kexagileak ere ezin zutelako bajaren iraupena aurreikusi patologiaren nolakotasuna zela-eta. Lanbiden kexagileak aurkeztutako soldatak daude 2019ko martxotik 2020ko urtarrilera artekoak, eta horietan Lanbideri jakinarazten zion diru-sarrera gutxiago zituela.

Modu horretan jardun zuenez eta Lanbidek egitateen berri zuenez, bere ezkontide ohiak (DSBEa/EPOa jasotzen zituenak baita ere) ebazpen judizialaren egikaritzearen gorabehera hasi zuen ordaindu gabeko mantenu pentsioen zenbatekoengatik Durangoko (Bizkaia) Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 2. epaitegian. Aurreko guztia DSBEaren araudian titular guztientzat ezarritako betekizun eta betebeharrak bat aplikatuz, zehazki Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 19.1. b) artikulua, DSBEaren maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12.1. b) artikuluan ere jasota dagoena, hauxe:

-“Titularrari edo bizikidetza-unitateko edozein kideri legokiokeen eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliatzea, prestazioak irauten duen aldi osoan.”.

¹Depresioaren irismena geroz eta gehiago aipatzen du Osasunaren Mundu Erakundeak, Nazio Batuen osasunaren aldeko nazioarteko erakundearen agentzia espezializatuak. Bere irizpenetan azaltzen du depresioa gaixotasun mentala eta mundu mailako desgaitasun kausa nagusia dela, eta garrantzia handia duela erikortasunaren munduko karga orokorrean. Ikus hurrengoa: <https://www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/depression>

Aurrekoaz gain, Auzitegi Gorenak jurisprudentzia zabal eta sendoa sortu zuen eta bertan ezaugarritzen dira depresioaren sintomak, muga funtzionalak, inpaktua eta larritasuna, zehazki laneko ezintasunari buruzko epaietan. Aurretiazko testuinguru horretan, egia dena da kexagileak Lanbiden txosten medikoen bidez egiaztatu zuela osasun mental eta neurologikoko arazoak zituela prozedura izapidetzen ari zen bitartean. Baja medikoan egon zen 2019ko urriaren 18tik 2019ko urriaren 25era zefaleak zituelako, 2019ko azaroaren 8tik 2019ko azaroaren 18ra antsietate nahasmenduarengatik eta 2019ko azaroaren 29tik 2019ko abenduaren 4ra zorabioengatik.

²625/2014 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, aldi baterako ezintasun prozesuen zenbait kudeaketa eta kontrol aspektu arautzen dituena lehenengo hirurehun eta hirurogeita bost egunen barruan: bajako lehen 3 egunetan ez da ezer kobratzen. Laugarren egunetik hogeigarren egunera oinarri arautzailearen % 60 kobratzen da eta hogeita batgarren egunetik aurrera oinarri arautzailearen % 75 kobratzen da: <https://www.boe.es/buscar/pdf/2014/BOE-A-2014-7684-consolidado.pdf>

Egitate horren berri izan eta gero, Lanbidek kexagileari entzunaldi izapidetzea jakinarazi zion 2019ko urriaren 14an. Horri erantzunez alegazioak egin zituen eta jakinarazi zuen zergatik ezin izan zuen bere 5 seme-alaben mantenu pentsioa osorik ordaindu. DSBEa berrabiarazteko ere eskatu zuen 2019ko urriaren 30ean.

Ondoren, 2019ko azaroaren 15ean, kexagileak Lanbiden egitateen jakinarazpenerako inprimaki normalizatu aurkeztu zuen eta horrekin batera bere ezkontide ohiak jarritako hainbat salaketen epaitegietako artxibategietako kopia entregatu zuen; salaketak jarri zituen kexagileak ez zuelako ordaindu gurasoen eta seme-alaben arteko neurrien hitzarmeneko mantenu pentsio osoa. Horietan auzitegiak beste batzuen artean aipatzen zuen kexagileak ez zuela dolorik ezta borondate faltarik mantenuen pentsio osoa ordaintzeko, eta horrez gain, kexagileak pentsio osoa ez ordaintzeko arrazoi izan ziren osasun, lan eta ekonomia inguruabarrak aipatu zituen.

Hala ere, 2019ko azaroaren 20ko ebazpenaren bidez Lanbidek kexagileari jakinarazi zion **DSBEa/EPOa** aldi baterako eten zitzaizkiola, honako hau zela eta³:

-“147/2010 Dekretuaren 12.1.i artikuluan ezarritako betebeharra ez betetzea: Administrazioaren aurrean agertzea eta harekin lankidetzan aritzea, hori eskatzen bazaie; nolana ere, kontuan izango dira Gizarteratze Hitzarmenean jasotako kasu bereziak.

Gizarteratzearen inguruan eskuduna den edozein erakundek eskatzen dionean, Administrazioaren dagokion tokira ez bertaratzea edo ez hari laguntzea.” (sic)

Aurreko guztia nahiz eta kexagilea Lanbiden egon zen eta entzunaldi izapidea egin zuen prestazioa aldi baterako eten aurretik eta agiriak aurkeztu zituen justifikatuz zergatik partzialki eta denbora batean ez zuen bete bere 5 seme-alabei aitortutako mantenu pentsioa ordaintzeko betebeharra.

Ebazpenean honako hau adierazi zen baita ere:

-“DSBE prestazioa jasotzeko eskubidearen eteteak jarraituko du eragin duten zirkunstantziek irauten duten bitartean.

Eteteak gehienez ondoz ondoko 12 hilabeteko aldirako iraungo du, eta hori igarotakoan, prestaziorako eskubidea azkendu egingo da. Aipatutako azkentze honek ekarriko du diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatzeko eskubidea ukatzea azkendu den unetik urtebete igaro arte, aplikagarria zaion araudiaren arabera (N5).”

Jakinarazi eta gero, kexagileak ez zuen berraztertze errekurtsorik egin Lanbiden. Horren ordez, kexa jarri zuen erakunde honetan.



2. Kexa izapidetzeko onetsi eta gero, **Arartekoak aurreko gertaerei buruzko informazioa eskatu zuen** Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegua Sailari helarazitako idazki batean.

Lankidetzeta eskariari erantzunez Lanbidek txosten labur bat idatzi zuen 2020ko otsailean, eta orokorrean DSBEaren aldi baterako etete ebazpenaren zioak errepikatzen zituen modu honetan:

-“Espedientea aztertu da:

Artikuluaren ezarritako betebeharra ez betetzea 147/2010 Dekretuaren 12.1.i artikulua: Administrazioaren aurrean agertzea eta harekin lankidetzan aritzea, hala eskatzen zaionean, hargatik eragotzi gabe Gizarteratzeko Hitzarmenean aurreikusitako berezitasunak.

M.L.O. bikotekide ohiak salatu duenez, seme-alaben mantenu-pentsioa ordaintzeko betebeharra ez betetzeagatik. Horrek esan nahi du ez dela betetzen Diru-sarrerak bermatzeko 18/2008 Legearen 19.1 c) artikulua (eskura dauden baliabideak arduraz administrazioa, egoera ekonomikoa edo bazterkeria-egoera larriagotu ez dadin)

3. Ondoren kexagileak erakunde honi jakinarazi zion bere ezkontide ohiak mantenu-pentsioaren zati bat ez ordaintzearen aurka jarri zuen demanda behin-behinean artxibatu zela jarri eta 3 hilabetera, aurretik aipatu dugun eta Lanbideri jakinarazi zitzaion Durangoko Epaitegiaren 2020ko martxoaren 10eko autoaren bidez. HIRUGARREN oinarrian hauxe aipatzen zuen:

-“En el presente caso, de las diligencias practicadas no se desprenden indicios suficientes en la causa para considerar que en el comportamiento de (...). exista el dolo exigido por tipo delictivo, pues aunque el investigado presenta una nómina para hacer frente al pago de la pensión en su integridad, ha habido pagos parciales todos los meses.

Además ha presentado la documentación que corrobora las afirmaciones hechas en su declaración, y es que tiene otros dos hijos menores, le han retirado la ayuda pública RGI, y ha estado de baja varios meses, motivo por el que ha visto reducidos sus ingresos. Pese a que el pago de los alimentos constituye una obligación constitucional reconocida, y pese a que se comparta con la denunciante el desprecio que merece la desatención del mantenimiento de los hijos menores, esta deuda debe reclamarse (normalmente) en vía civil, reservando la penal para aquellos casos en que el comportamiento merezca de un especial reproche por el carácter deliberado y doloso del impago, cuestión ésta que no se aprecia en este caso.

En consecuencia, procede el sobreseimiento provisional de la causa por no haber quedado debidamente acreditada la perpetración de delito. Ello sin





perjuicio de que en el procedimiento civil puedan reclamarse las pensiones impagas con aplicación de las medidas de apremio que correspondan.”

2020ko ekainaren 3an kexagileak doako laguntza juridikoa jasotzeko eskaria aurkeztu zuen indarrean zegoen gurasoen eta seme-alaben arteko neurrien hitzarmena aldatzeko bere inguruabar eta familiako karga berriak kontuan hartuta. 2020ko uztailaren 28an kexagilearen ofiziozko abokatuak aurkeztu zuen demandan aipatu zuen aldaketaren arrazoia zela egungo bikotekidearekin bi seme-alaba berri jaio izana, eta horregatik *“aurreko egoera nabarmenki aldatzen zela”*⁴. Une horretan izapidetu zuen Ex 421/2018 seme-alaben neurrien prozedura, eta ondoren 2010eko martxoaren 31ko 186/2010 autoko behin betiko neurriak ezarri ziren.

Demandan azaltzen zen baita ere jarri zen unean kexagileak ez zuela gizarte prestaziorik jasotzen, izan ere, bizikidetza unitateari aitortutako DSBEak etenda eta ordaindu gabe jarraitzen zuen 2019ko azaroaren 20tik.

4. Aurreko guztia gorabehera, Lanbidek prestazioaren etetea mantendu zuen 12 hilabetetan, izan ere, prestazioaren titularrarentzat ezinezkoa izaten jarraitzen zuen mantenu pentsioa osorik ordaintzea, eta 2020ko urriaren 01ean Lanbidek kexagileari esan zion DSBE osagarriaren prestazioa iraungitzeko prozedura hasiko zela arrazoi hauengatik:

–“18/2008 Legearen 28.1.d artikuluan ezarritakoaren arabera: Jarraian 12 hilabetez baino gehiago etenda egotea.”

2020/REV/082989 prozedura instrukzioa egin eta gero eta kexagileak alegaziorik jarri ez zuenez, Lanbidek 2020ko urriaren 25ean hauek egin zituen:

“1. DSBE prestazioa jasotzeko eskubidea azkentzea, efektuen data 2020(e)ko urriaren 31 izanda, aplikagarria zaion araudiaren arabera (N7) eta ondoren azaltzen diren arrazoiengatik:

18/2008 Legearen 28.1.d artikuluan ezarritakoaren arabera: Jarraian 12 hilabetez baino gehiago etenda egotea.”

5. Ebazpen hori egin zenetik urtebete eta 4 hilabete igaro zirenean, 2022ko otsailaren 22an kexagileak gizarte larrialdietarako laguntza (GLL) eskatu zuen Barakaldoko Udalean, ezin zituelako ordaindu bere 2 seme-alaba adingabekoen eta emaztearen oinarritzko betebeharrak eta ezin zuelako ezta ere une horretan zituen diru-sarrerekin bere beste 5 seme-alaben mantenuen pentsioa ordaindu, izan ere, bere egoerak okerrera egin zuen azken hilabeteetan aurreko guztiarengatik.

Eskari horri erantzunez oinarritzko gizarte zerbitzuek eskutitza bidali zioten bi hilabete geroago, 2022ko apirilaren 19an, eta esan zioten laguntzen eskariaren





prozeduran 10 eguneko epean DSBEaren eskari berria aurkezteko, arriskua zegoelako bere GLL eskaria artxibatzeko. Horregatik, Lanbiden eskatu zuen berriz ere 2022ko apirilaren 22an.

Eskaria aurkeztu zuenean DSBE osagarria ez zegoen berrezarrita Lanbidek 2019ko azaroan behin-behinean eteteko ebazpena eman zuenetik. Gainera, 6 hilabete igaro ziren DSBEaren eskubide subjektiboaren iraungitzeari lotutako urtebeteko zehapena 2021eko urrian bukatu zenetik. Prozedura hori zela-eta DSBEaren prestazioa aitortu zitzaion azkenean 2022ko apirilean.

Hortaz, beharrezkoak diren egitateak eta zuzenbideko oinarriak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

Espediente honetan aztertu beharra dago ea DSBE osagarriaren bizikidetzaren unitate titularrak -bi adingabe kargura dituenak- eskubide horren aldi baterako etetearen, 12 hilabetean etetea mantentzearen eta iraungitzearen kausak bete dituen, urtebetean prestazioa berriz ere eskatu ahal izateko ezintasunarekin. Horrez gain, 7 adingabeengan izandako inpaktuaren irismena ere analizatu beharra dago, kontuan hartuta adingabeen interes gorena aintzat hartzeko betebeharra.

1. Gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak (18/2008 Legea) arautzen dituen DSBE/EPO prestazioak - Gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko Legea aldatzen duen azaroaren 24ko 4/2011 Legeak (4/2011 Legea) emandako idazkeran- eskubide subjektibo gisa konfiguratu dira, eta beraien xedea da gizarte bazterketa egoerak arintzea eta baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko nahikorik ez dutenen gizarteratzea erraztea, modu horretan herritarren gizarte eskubideak eraginkorki egikaritu daitezten.

Bizikidetzaren unitateari aitortu zitzaion DSBEaren aldi baterako etetea, 2019ko azaroaren 20koa, arrazoi hauengatik izan zen⁵:

-“147/2010 Dekretuaren 12.1.i artikuluan ezarritako betebeharra ez betetzea: Administrazioaren aurrean agertzea eta harekin lankidetzan aritzea, hori eskatzen bazaie; nolahi ere, kontuan izango dira Gizarteratze Hitzarmenean jasotako kasu bereziak.

Gizarteratzearen inguruan eskuduna den edozein erakundek eskatzen dionean, Administrazioaren dagokion tokira ez bertaratzea edo ez hari laguntzea.” (sic)

Hala da, Lanbidek uste zuen kexagileak ez zuela bete 2010eko martxotik indarrean zegoen gurasoen eta seme-alaben arteko neurrien hitzarmenean ezarritako bere 5

⁵Diru-sarrerak bermatzeko 18/2008 Legearen 19.1.c) artikuluan ezarritako dagoena eta DSBEaren maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12. artikuluan ere agertzen dena.



seme-alaben mantenuen hilabeteko pentsioa osorik ordaindu izanaren ziurtagiriak aurkezteko betebeharra. Halaber, Lanbideren ustez mantenu pentsioa aldi batean osorik ez ordaintzea bigarren betebeharraren baten ez betetzea izan zen, aurretik aipatutako 147/2010 Dekretuaren 19.1. c) artikuluan jasotakoa, hauexek: *“arduraz administratzea eskuragarri dituen baliabideak ekonomia edo bazterketa egoera areagotzea ekiditeko”*. Betebeharrak horiek 147/2010 Dekretuko 12. artikuluan jasota daude. Lanbidek etete kausa hori aplikatu zuenean ez zuen kontuan hartu baja medikoa zela-eta diru-sarrerak gutxiago zituela.

Horregatik, Lanbidek maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 43. artikulura eta hurrengoetara jo zuen. Horren bidez arautzen da *“Eskubidearen etetea”* eta 2. apartatuan zehaztutakoa aplikatu zuen:

“Titularrak edo bizikidetzaren-unitateko kideren batek prestazioa lortzean hartutako betebeharraren bat aldi baterako ez betetzea, bereziki dekretu honen 12. artikuluan adierazitakoak”.

2. Lanbideren 2019ko azaroko hasierako aldi baterako etete ebazpenaren zioetan jasotako bi kausak aztertuta, erakunde honek hauexek jakinarazten du:

- Alde batetik, 147/2010 Dekretuaren 12.1.i artikuluan ezarritako betebeharra ez-betetzeari dagokionez, hau da, *“Administratzaileak joatea eta lankidetzaren aritzea hala eskatzen denean”*, egiaztatu da kexagileak Lanbidek aldi baterako etetea gauzatu aurretik egindako entzunaldi izapidetzeari erantzun ziola eta alegazioak epean egin zituela. Horrez gain, bere ezkontide ohiak aldi batean mantenu pentsioa osorik ordaindu ez zuelako jarritako hainbat salaketan artxibo judiziala aurkeztu zuen. Beraz, ez da egiaztatu betebeharrak hori bete ez zuenik.

- Bestalde, aldi baterako ebazpenaren zioan jasotako bigarren ez-betetzeari dagokionez, zehazki betebeharrak hau: *“...administrar responsablemente los recursos disponibles con el fin de evitar el agravamiento de la situación económica o de la situación de exclusión⁶”*, Lanbidek egintza honi lotzen zion: *“Según denuncia de su expareja (...). por incumplir obligación de pago de pensión de alimentos de los hijos en común fechada en JUL-2019”*.

Deigarria da Lanbidek (prestazioak aldi baterako eten aurreko entzunaldi izapidetzetik jakinik zeintzuk ziren kexagileak justifikatu zituen arrazoiak bere 5 seme-alaba nagusiei mantenu pentsioa denbora batez osorik ordaindu ezin izateko eta hori egiaztatu zela laneko eta medikuen dokumentazioarekin) egitate hori interpretatu eta onartu izana betebeharrak hori ez betetzeko arrazoi gisa. Kexagileak gainera, aurretik jakinarazi zuen baja medikoa eman ziotela eta bere diru-sarrerak gutxitu zirela, eta informazio hori berretsi zuen entzunaldi izapidetzean.

⁶Diru-sarrerak bermatzeko 18/2008 Legearen 19.1.c) artikuluan ezarritako dagoena eta DSBEaren maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12. artikuluan ere agertzen dena.



Bereziki Lanbiden kexagileak era berean 2019ko azaroaren 15ean aurkeztu zituelako bere ezkontide ohiak bide judizialean jarri zituen hainbat salaketan epaitegien artxiboen kopia, izan ere, kexagileak ez zuen ordaindu mantenu pentsioa. Kopia horretan epaitegiak azaltzen zuen beste kontu batzuen artean ez zegoela ez dolorik ezta nahi faltarik ere kexagileak mantenuen pentsio osoa ordaintzeko, eta ez ordaintzeko arrazoiak izan ziren osasun, lan eta ekonomia inguruabarrak azaldu ziren baita ere.

Laburbilduz, erakunde hau ez dago ados DSBEaren aldi baterako etetearen arrazoiarekin 18/2008 Legearen 19.1. c) artikulua aplikatzeari dagokionez, izan ere, ez da arrazoizkoa laneko inguruabarrak eta bestelako pertsonalak jakinarazi eta gero ulertzea txosten medikoekin egiaztatutako laneko baja batengatiko diru-sarreraren gabezia konparagarria denik egoera ekonomikoa eta gizarte bazterketakoa larriagotzea sortzen duen familia baten baliabide ekonomikoak ardurarik gabe kudeatzearekin.

Aurreko guztiak **ondoren** analizatu ziren pentsioak ordaindu ez izanagatik jarritako salaketan. Horrekin lotuta, Durangoko 1. Instantziako eta 2. Instrukzioko epaitegiaren 2020ko martxoaren 10eko autoaren edukia adierazgarria da:

“En el presente caso, de las diligencias practicadas no se desprenden indicios suficientes en la causa para considerar que en el comportamiento de (...) exista el dolo exigido por tipo delictivo, pues aunque el investigado presenta una nómina para hacer frente al pago de la pensión en su integridad, ha habido pagos parciales todos los meses.

Además ha presentado la documentación que corrobora las afirmaciones hechas en su declaración, y es que tiene otros dos hijos menores, le han retirado la ayuda pública RGI, y ha estado de baja varios meses, motivo por el que ha visto reducidos sus ingresos. Pese a que el pago de los alimentos constituye una obligación constitucional reconocida, y pese a que se comparta con la denunciante el desprecio que merece la desatención del mantenimiento de los hijos menores, esta deuda debe reclamarse (normalmente) en vía civil, reservando la penal para aquellos casos en que el comportamiento merezca de un especial reproche por el carácter deliberado y doloso del impago, cuestión ésta que no se aprecia en este caso”.

Kexagilearen Lanbideko eta erakunde honetako espedienteko dokumentazioa ikusirik, 2019an izandako nahi gabeko baja mediko baten ondoriozko bizikidetzaren unitatearen diru-sarrerak gutxitu eta gero, erakunde honek uste du kexagileak bere inguruabarretan ahalegina egin zuela bere 5 seme-alaba nagusien mantenu pentsioa ordaintzeko (nahiz eta partzialki izan) eta bitartean bere bizikidetzaren unitateko 4 kideen oinarrizko beharrak betetzeko ahalegina egin zuela baita ere. Arartekoak uste du baja mediko bat dela-eta diru-sarrera gehiago jaso ezin izatea eta aurreko harremaneko 5 seme-alaben mantenu pentsioa ordaintzeko zailtasunak (gainera, beste familia bat zuen kargupeko bi adingaberekin) ez direla bateragarriak



ekonomia edo bazterketa egoera larriagotzea ekiditeko baliabideak modu arduratsuan administratzearekin.

Egiaztatu da Lanbidek ez zituela baloratu prestazioaren titularraren, bere bizikidetzaren unitatearen eta 5 seme-alaba nagusien inguruabar zehatzak, eta ez zituen kontuan hartu ezta ere DSBEa aldi baterako eten aurreko alegazioen fasean aurkeztutako informazioa eta dokumentazioa; bertan egiaztatuta geratu zen familiak une horretan aurre egin beharreko zailtasunak zituela, eta kexagileak aldi baterako irtenbideak bilatzen zituela gurasoen eta seme-alaben arteko neurrien hitzarmena betetzen zela bermatzeko eta familiaren oinarrizko betebeharrak betetzeko, baja mediko bat zela-eta diru-sarrera gutxiago izan zituen une batean.

Aldi berean, egoera hori ikusirik, administrazioak erabaki behar izan zuena ez litzateke inolaz ere izan behar kaltegarriagoa kexagilearentzat eta ekonomikoki guztiz edo partzialki bere menpekoak diren 9 pertsonentzat. Halaber, aurrekoa ez da bateragarria Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko legearen xedearekin, hau da: herritar izateak dakartzan eskubide sozialak benetan baliatzeko orduan baliabide pertsonal, sozial edo ekonomikorik ez dutenei laguntzea.

Aurreko guztia gorabehera, Lanbidek prestazioa eten zuen 12 hilabetetan zehar, 2020ko urrian eskubidearen iraungitzea ebatzi zuenera arte arrazoi hauek zirela-eta *"12 hilabete baino gehiagoko aldi jarraian etete egoera mantendu izana"*. Horrez gain, urtebetean prestazio hori berriz eskatu ahal izateko debekua ezarri zion, hau da, 2021eko urrira arte.

3. Espediente honetan hizpide denerako, erakunde honek berriz ere gogorarazi behar du oso garrantzitsua dela adingabearen interes gorena errespetatzea eta aintzat hartzea, gure ordenamendu juridikoan ageri baita (Nazio Batuen 1989ko Konbentzioa, Haurren Eskubideei buruzkoa; haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzeko uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa, adingabearen babes juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan adingabearen interes gorenari dagokionez ezarritako araudia aldatzen duena).

Eskubide substantiboa da, hau da, hurrek beren interes gorena lehentasunezkoztat jo dezaten duten eskubidea -ebalatu egingo dena eta eztabaidatutako kontu baten gaineko erabakia hartzeko interes desberdinak neurtzean kontuan hartuko dena-, eta haur bati, haur jakin batzuen talde bati edo hurrei orokorrean eragingo dien erabaki bat hartu behar den aldiro eskubide hori beti aintzat hartzeko bermea da baita ere.

Interpreta daitekeen oinarrizko printzipio juridikoa: xedapen juridiko batek interpretazio bat baino gehiago onartzen baditu, haurraren interes gorena modu eraginkorrean beteko duen interpretazioa aukeratuko da. Hitzarmenean eta horren hautazko protokoloetan ezarritako eskubideek osatu dute esparru interpretagarria.





Prozedurazko araua: haur jakin bati, haur jakin batzuen talde bati edo haurrei orokorrean eragingo dien erabaki bat hartu behar den bakoitzean, erabakiak hartzeko prozesuak erabaki horrek interesdun haurraren/haurren edukiko dituen ondorio posibleen (aldekoak eta kontrakoak) balioztapena eduki beharko du barnean. Adingabearen interes gorenaren ebaluazioa eta zehazpenak prozesu-bermeak eskatzen dituzte.

Gainera, erabakien justifikazioak argi utzi behar du berariaz hartu dela eskubide hori kontuan. Horrekin lotuta, erabakia hartu behar duten instantziek azaldu behar dute nola errespetatu den.

Hori bereziki jaso zen Arartekoaren apirilaren 8ko 2/2015 Gomendio Orokorrean eta honako hau adierazten zen: *"Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eteteari eta iraungitzeari buruzko erabakietan, bizikidetza unitatean haurrak daudenean, adingabearen interes nagusia ebaluatu dadila, interes hori lehentasunezkoztat jo dadila, eta neurtu daitezela prestazioen onuradun diren bizikidetza unitatearen kideek (haurren gurasoek edo tutoreek nagusiki) betebeharren bat ez bete izanagatiko hausteak."*

Ardurapean adingabeak dauden kasuetan, haur pobreziako prozesuak eta gizarte bazterketako egoera larriak hastea saihestu beharko litzateke. Bereziki COVID-19 koronabirusak sortutako osasun eta gizarte krisiaren egoera batean eta 463/2020 Errege Dekretua, martxoaren 14koa, onetsi zenean, COVID-19 koronabirusak sortutako osasun krisiaren egoera kudeatzeko alarma egoera aitortzen duena.

Beharrezkoa da gogoraraztea Covid-19aren pandemian seme-alaba adingabeak dituzten familia batzuen bizi baldintzak larriagotzeak -aldi hori bat dator ebazpen honen muina den prozedurarekin- pobrezia erreala nabarmenki handitu zuela 14 urte baino gutxiagoko adingabeak bizi ziren etxeetan. Hala, 2020an kolektibo horretan egon den benetako pobrezia-tasa % 10,7koa izan zen, hots, 2008tik egon den altuena.

Pobrezian dauden pertsonen artean, 14 urtetik beherako pertsonak dituzten etxeetako biztanleria 2018ko % 50,2tik (2008tik zifrarik baxuena) % 57,6ra igo zen 2020an. 2012-2020 aldiko kopururik altuena da; haren gainetik 2008ko % 63,1 soilik dago⁷.

Aurreko guztiarengatik, erakunde honen ustez kexa espediente honen hizpide den kasuan ez zen DSBEaren eskubidearen aldi baterako etetea erabaki behar izan, ez baitzen egiaztatu ebazpenaren zioetan adierazitako betebeharrak bete ez zirenik.

Kexagileak azaldu eta egiaztatu egin zituen bere 5 seme-alaben mantenuen pentsioa ordaindu ezin izatera eraman zuten arrazoiak, eta beraz, frogatuta geratu da Lanbidera jo zuela eta lankidetzan aritu zela. Halaber, justifikatu egin zituen baita ere mantenuen pentsio gisa ezarritako zenbatekoak ez ordaintzeko arrazoiak;

⁷ Enplegu eta Gizarte Politiketako Estatistika Organo Espezifikoa, 2021: 56.



horiek gainera, prozedura judizial baten muina izan ziren eta bertan artxibatze auto bat agindu zen ez zegoelako dolurik ezta inolako nahirik pentsioa ez ordaintzeko, horren arrazoia justifikatua zegoelako, eta beraz, ez dira aplikatu behar 147/2010 Dekretuaren 12.1 c eta 1.i artikulua (Lanbidek erabili zituenak eskubidearen etetea eta etete hori urtebetean mantentzea erabakitzeke).

Aurrekoa zela-eta prestazioa iraungi zen eta kexagileari DSBEa urtebetean eskatzeko debekua ezarri zitzaion eta horrek ondorioak sortu ditu bi seme-alaba kargura dituen familian eta bere ezkontide ohiaren familian (kasu horretan inpaktu gutxiagorekin, DSBEaren onuraduna baita bera ere).

Arartekoak uste du nahi gabe mantenu pentsioa ez ordaintzeagatik sortutako ondorioak gehiegizkoak direla, eta berrikusi egin beharko liratekeela DSBEaren eskubidearen etetea eta iraungitzea.

DSBEa herritar izateak dakartzan eskubide sozialak benetan baliatzeko orduan behar beste baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko ez dutenei laguntzeko prestazioa da, bai bazterkeria-arriskuari aurre egiten, bai bazterkeria pertsonala, soziala eta laborala arintzen, bai gizarteratzea errazten (18/200 Legearen 1. artikulua) eta oinarrizko beharren gastuak eta gizarteratze eta/edo laneratze prozesuetako gastuak ordaintzeko da, eta gastu horiei aurre egiteko behar besteko diru-sarrerarik ez duten bizikidetzak unitateetan bizi diren pertsonen zuzenduta dago (147/2010 Dekretuaren 2. artikulua). Are larriagoa da umeei eragiten dienean, kasu honetan bezala, izan ere, ez da kontuan hartu adingabeen interes gorena, nahiz eta aipatu araudian betebeharrak hori jasota egon.

Horregatik guztiagatik, Arartekoak gomendio hau egiten du, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Egindako gogoetekin bat etorritik, Arartekoak Lanbideri gomendatzen dio berrikusi ditzala diru-sarrerak bermatzeko errentaren aldi baterako etetea eta ondorengo iraungitzea, ez baitago hori erabakitzeke kausarik, izan ere, kexagileak administrazioarekin lan egin du eta justifikatu du behin-behinean ezinezkoa izan dela mantenu pentsioa osorik ordaintzea. Gainera, ezinezkotasan hori ezin da alderatu titular guztiek egoera ekonomikoa edo bazterketa egoera areagotzea ekiditeko baliabideak arduraz administratzeko duten betebeharra bete ez izanarekin.

